

BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO ATALAK

A.O.I.A. taldea

IDEIA: Energia generatzen duen kirol-makina

Gure produktua bezeroengana iristeko lehen pausoa iragarki bat sortzea izango zen, bai telebistan eta bai kiroldegiko ginmasioko sarreran. Bertan, produktu berri bat sortu dela jarriko dugu, horrela bezeroak erakarri eta probatzeko probabilitate handiak ematen dituelako.

Munduko edozein lekuetara iristeko iragarki desberdinak sortuko ditugu eta kanal desberdinetan jarri, horrela beste pertsonak ohartzeko aukera handiagoak izango dituzte. Horrez gain, sare-sozialetan, Instagramen adibidez, kirol-makinen inguruko informazioa egongo den kontu bat sortuko dugu, izan ere, gaur egun sare-sozialak baliabide esanguratsuak dira publizitaterako. Edonork ikusi al izango du igoko ditugun argazkiak eta horrela bezeroengana errazago iristeko aukera izango dugu.

Web-orri bat ere sortuko dugu, bezeroak bertatik gurekin kontaktuan jarri ahal izango dute eta baita gure produktuen inguruko informazio guztia jaso ere. On line denda bat da kirol-makinak saltzeko erabiliko dugun kanala. Kirol-makinak webgunean erosi ahal izango dituzte bezeroek eta bidalketa, kontratatutako garraio-enpresa baten bitartez egingo dugu.